EUSKARAREN HILABETEA
2018ko otsailaren 28tik martxoaren 23ra

# EUSKARALDIArekin BAT



## HH, LH 1 eta LH2
## ikasleen lanak

Ayuntamiento Udala
irun



# AGURRA

Kaixo haur maiteak.

IRUNEROren Ale berezi honen sarrera prestatzen ari nintzenean gogora etorri zitzaidan gure amak afaldu ostean katilukada esne eman eta oheratzen gintuenean ohe-burukora hurbildu eta kontatzen zizkigun ipuinak. Amaren ahots goxoak nik ezagutzen ez nituen mundu eta planetara eramaten gintuen ipuin haien bitartez, ezagutzen ez genuen errealitate desberdinetara.

Duela gutxi ama izan naiz eta nire alabari amak niri irakurtzen zizkidan ipuin haiek alabari irakurtzea gustatuko litzaidakeela maiz pentsatu dut. Alabari gure amak guri irakurtzen zuen pasio berarekin irakurri nahi diot, mundu ezberdin hobe bat nahi dudalako berarentzat eta ipuinek tokia izan behar dutelako mundu horretan. Irakurri ditudan zuen lanek gogora ekarri didate, gainera, bizitzan amets batzuk lortzeko borrokatzea merezi duela eta horietako bat, zalantzarik gabe, haur izateari uko ez egitea dela.

Eskerrik asko, beraz, zuen ahaleginarengatik eta eskerrik asko zuen irakasleei, irakurketaren bidez mundu zoragarrietara joateko zuen itsasargiak baitira.

**Irunen, 2018ko martxoan**
**Mónica MARTÍNEZ NOTARIO**
**EUSKARA ORDEZKARIA**

Irunero

**ARGITARATZAILEA:**

**837 Comunicación y Publicidad S.L.**

**MAKETAZIOA: Joseba Arozena.**

**LEGE GORDAILUA:**
**SS-230-94**

irun





# Aurkibidea


BELASKOENEA

- Ipuina 4. or.
- Txantxangorriaren kanta 14. or.
- Elikagaien azterketa 24. or.

DUNBOA

- Eskulana 5. or.
- Errezetak 15. or.
- Ekosistemak 25. or.

EGUZKITZA

- Marrazkiak 6. or.
- Denok berdin, denok ezberdin 16. or.

ELATZETA

- Marrazkia 7. or.
- Igarkizunak / aho -korapiloak 17. or.

EL PILAR

- Marrazkia 8. or.
- Hizki zopa 18. or.
- Ekosistemak 26. or.

IRUNGO LA SALLE

- Marrazkia 9. or.
- Urteberriko dragoia 19. or.
- Komikia 27. or.

LEKAENEA

- ENE argazkiak 10. or.
- ENE horma-irudia 20. or.
- Giza gorputzarekin esperimentatzen 28. or.

SAN VICENTE DE PAUL

- Marrazkiak 11. or.
- Amakizunak 21. or.
- Nire anekdota 29. or.

TOKI-ALAI

- Euskaraz blai 12. or.
- Giza gorputza 22. or.
- Kutsadura 30. or.

TXINGUDI IKASTOLA

- Euskararen Eguna 13. or.
- Euskararen zuhaitzak 23. or.
- Esaera zaharrak 31. or.

Aurten Euskararen eguna ospatzeko 3, 4 eta 5 urtekoek ipuin polit bat asmatu dugu. Salvador Daliren koadro batean oinarrituta, "Muchacha en la ventana", guztien irudimena martxan jarri eta honako ipuin hau sortu genuen.



Behin batean bazen neska bat. Kristal izena zuen eta etxe handi batean bizi zen itsasoaren ondoan. Egun batean leihoa ireki zuen eta itsasoan belauntzi bat ikusi zuen.

Bertan Valeria ikusi zuen arrantzan. Valeria bazkaltzera gonbidatu zuen. Eta… zer prestatuko zuen ari zen pentsatzen. Agian, patata tortila. Ba, azkenean menua pentsatu zuen: lehen platera entsalada, bigarrena saltxitxak eta postre bezala gazta.

Bazkaldu ondoren, soinu fuerte bat entzun zuten eta leihotik begiratu zuten Kristalek eta Valeriak, eta badakizute zer zegoen?. Marrazo haundi bat, saltoka leihotik sartzeko. Valeriak eta Kristalek itxi zuten azkar leihoa baina marrazoak leihoa puskatu eta Valeria jan zuen. Kristal korrika ohe azpian sartu zen.

Marrazoa bere atzetik joan zen eta bere hortz handiekin ohea altxatu zuen. Kristal korrika eginez kalera irten zen eta oihukatu zuen: -LAGUNDU…!

Bitartean marrazoak salto egin eta itsasora bueltatu zen. Kristalen lagunak etorri ziren laguntzera itsasontzian. Leihoa ireki eta kristal itsasontzira igo zen marrazoa harrapatzera. Marrazoak itsasontzia ikustean korrika alde egin zuen. Bere atzetik joan ziren eta harrapatu zuten. Itsasontzian sartu zuten marrazoa eta Aquariumera eraman zuten. Aquariumean arrainontzi erraldoi batean sartu zuten eta orain hor bizi da oso pozik.

Hala zan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Irungo plazan.




# Dunboa ikas-komunitatea
# Haur hezkuntza


UDANE
4. urte A



Elatzeta HH



El Pilar HH



Alicia Alonso Sánchez

Irungo La Salle 5 urte



Darío Arroyo Durán

Irungo La Salle 5 urte

# EUSKARAREN EGUNA OSPATZEN !!!



HH2



HH3

GAU ETA EGUN



EUSKARA LAGUN

HH5B



HH4



HH5A


EUSKARAZ
BIZI!


EUSKARA
EZPAINETARA




EUSKARA ZURE ESKU
TOKI ALAI EUSKARAZ BLAI BLAI
TOKI ALAI
EUSKERAZ
BLAI


TOKI ALAI
EUSKERAZ
BLAI

Toki Alai HH

EUSKARAREN EGUNA

Txingudi Ikastolako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikas-leek elkarrekin prestatutako jarduerak egin dituzte Euskararen eguna ospatzeko. Denok gozatu genuen festa giroan euskaraz.







### *EUSKARAREN TXANTXAGORRIA*

SORTALDEKO ARGI BERRIARI

ARI ZAIO ASPALDI

ARRATSEKO AZKEN IZPIARI

EGUN ETA GIZALDI

BULAR GORRI, HEGAKADA ARIN

LUR HAUETAN DA EMARI
ERREKA ETA IBAI
ZABALAREN, ITSASOAREN
EGARRI

**LAU HAIZETARA** 

**BERA DABIL AIREAN**

 **BELARRITAN**

 **EPELEAN**

**KALEAREN BIZIA**

**HERRI**  **HONEN**



HAIZEAREN MAGAL LEUNEAN
HEDATU DA OIHUA
BIHOTZAREN TAUPADETAN,
HITZAK SORTU DU DOINUA

OLATUEK BEREN SOLASEAN

AUKERATUTAKO HARRIA

DENBORAN ZEHAR DUTE JOLASEAN

ETEN EZ DADIN HARIA

 **LAU HAIZETARA HEGAN**

**BERA DABIL AIREAN**

**AHOTAN, BELARRITAN**

**SU EPELEAN**

**BIZIA**

**HERRI HONEN IRRIA**



**EUSKARAREN**

  **HEGAN**


OSAGAIAK:






PATATA TORTILLA
OSAGAIAK
3 patata
tipula 1
NOLA EGIN






DENOK BERDIN
DENOK EZBERDIN

# IGARKIZUNAK

Aurrean punta bi, atzean zulo bi.
zer da? ______________
( guraizeak )

Gona luzea du, mihia motza,
urrutitik entzuten da haren kantu hotsa.
Zer da? ______________
( kanpaia )

# AHOKORAPILOAK

Sei sisa horixka zaren sangoiak egosiak.
Sei sisa horixka zaren basotik ekarriak.

Ris-ras, ris-ras paperak urratzen hots.
Ris-ras, ris-ras paperontzira doaz.

**2. maila**

Amaia Txopetea - Eider Aramburu

# HIZKI ZOPA

• Aurki itzazu 9 zuhaitz hauek:

Gaztainondoa, Lizarra, Pinua, Pagoa, Haritza, Izeia, Olibondoa, Udareondoa, Urkia.

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | A | Z | T | A | I | N | O | N | D | O | A |
| H | D | R | A | I | B | P | I | N | U | A | P |
| A | L | I | P | Y | D | A | R | M | J | O | Z |
| R | U | R | K | I | A | G | E | F | R | S | I |
| I | Z | E | I | A | X | O | R | A | S | M | H |
| T | U | M | L | I | Z | A | R | R | A | P | O |
| Z | U | D | A | R | E | O | N | D | O | A | N |
| A | O | L | I | B | O | N | D | O | A | K | U |

Ondo pasa!

El pilar, I Anitetxea

LH2. maila

URTEBERRIKO DRAGOIA

Behin batean, Txinako hegoaldean, Niam izeneko dragoi erraldoi bat zegoen. Urte osoa ur azpian ematen zuen. Urte zahar gauean haserre bizian ateratzen zen. Dena akabatzen zuen. Urteko azkeneko egunean, herrikako biztanleek beren gauzak kutunenak hartzen zituzten eta inguruko mendirik altuenera igotzen ziren. Urte batean, agure zahar bat handik pasatu zen eta esan zien:

- Ez zaitezte kezkatu Niamengatik, ezusteko bat emango diot. Baina ez zituzten [illegible].

Niam ateratzean, prestatutako petardo sorta bati su eman zion eta Niami ezusteko galanta eman zion eta ez zen berriro atera. Orain ihesi [illegible] dute petardoak botaz.



# EUSKARA BIHOTZETIK EZPAINETARA

Hauek dira euskararen egunerako egindako horma-irudiak.










LH1 eta LH2

# Asmakizunak

Alkandora nire
zuriarekin, jaka
beltzarekin, dotore
ikusten naute jaten.

Pinguinoa



Ez naiz haizea, ez naiz
elurra. Baina nire nega-
rrarekin bustiko za-
itut berriro. Zer naiz?

Euria



Bata bestearen gainean
bizi dira, eurak gabe ezin
musurik eman genezake.

Ezpainak




GIZA
GORPUTZA


AHOA




AHOA

# EUSKARAREN ZUHAITZA

Aurten, Txingudi Ikastolan, Euskararen eguna osoatzeko 1. eta 2. mailakoen artean bi zuhaitz egin genituen. Haur bakoitzak hosto batean idatzi zuen euskara bultzatzeko hartutako konpromisoak, euskaraz egiten ditugun ekintzak,... Ondoren, gelaka hosto guztiak zuhaitzean itsatsi genituen. Zuhaitzak oso politak gelditu ziren eta ikastolako sarreran jarri ditugu zintzilik.






HIZKI ZOPA HONETAN GURE ELIKADURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN 9 HITZ BILATU

GURE ELIKADURA

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | A | O | T | A | R | D | I | H | O | B | R | A | K | F |
| O | B | F | S | I | T | A | T | F | A | F | P | Z | A | Ñ |
| M | I | L | Q | Z | K | G | T | S | A | I | K | K | N | J |
| G | P | J | L | Q | I | A | A | O | A | E | A | I | I | K |
| A | P | H | C | R | E | C | N | T | I | I | P | K | E | A |
| O | K | J | X | C | B | S | E | I | A | Y | Y | I | T | V |
| Q | T | T | X | V | Q | I | N | G | M | C | B | W | O | I |
| Z | V | L | L | B | D | S | U | O | Ñ | A | Q | N | R | K |
| U | E | M | O | S | M | N | P | V | K | J | T | W | P | S |
| S | O | W | X | I | E | M | X | R | G | R | E | I | O | Q |
| W | Ñ | H | I | T | X | H | X | K | R | F | W | R | B | S |
| Y | O | D | N | Q | K | V | P | A | Q | D | G | J | U | C |
| O | R | A | J | P | C | D | Y | G | U | P | N | L | B | R |
| Z | M | A | O | I | Z | I | R | T | U | N | S | J | P | J |
| X | F | D | E | S | N | U | T | R | I | Z | I | O | A | U |

kokolikoko.com

**Zenbakiekin elkartu hitzak eta hauen esanahiak:**

| | |
|---|---|
| BITAMINAK | Gehiegizko pisua |
| DESNUTRIZIOA | Hazteko beharrezkoak diren substantziak dira |
| DIETA | Elikagaietatik substantziak lortzea da |
| KARBOHIDRATOAK | Pertsona batek normalean hartzen dituen janarien eta edarien multzoa |
| KOIPEA | Energia ematen digute |
| MANTENUGAIAK | Energia haundia ematen digute |
| NUTRIZIOA | Elikagaien falta da. Hazkuntza atzera daiteke |
| OBESITATEA | Koipeak, proteinak, bitaminak, karbohidratoak eta gatz mineralak dira |
| PROTEINAK | Nahitaezko substantziak dira osasuntsu egoteko |

BELASKOENEA – 2.ZIKLOA





Bigarren zikloko ikasleek, ekosistemak nolakoak diren eta nola zaindu behar ditugun landu ondoren, maketak egin ditugu.








Ekosistemak
El Pilar Ikastetxea
4. maila


Euskaraz biri nahi dut
Euskaraz biri nahi duzu nirekin
Bai
Bai
Kaixo
Kaixo
Bai
Geroago denak biri ziren euskaraz
Bai lortu dut



# GIZA-GORPUTZAREKIN ESPERIMENTATZEN



LEHENENGO gustamenaren ezagutzeko esperimentua egin genuen

Ze polita!



ONDOREN arnasa eta ura nahasten eta giltzurrunak egiten duten lana hobeto ulertu genuen



GERO estetoskopioarekin bihotzaren taupadak entzun genituen

Tun-Tun



AZKENEK elikadura-aparatua ere ondo ulertu genuen

## 2.zikloa

# NIRE ANEKDOTA

Egun batean Irungo baratzegi batean negoen nire gurasoekin.

Bertan tomate pila bat zeuden. Tomate bat lurrean ikusi nuen eta gordetzera joan nintzen. Hartzerakoan irristatu nintzen eta lurrera erori nintzen, nire gurasoak zeudenak gorriak jarri ziren.

CAMIL MATEO



# KUTSADURA

Airean energia, gas edo material kutsakor bat botatzen dugunean gertatzen da. Gizakiok gure lantegi eta etxeetan, baita garraiobideekin ere, ke eta gas horiek sortzen ditugu. Gas horietako batzuk oso kaltegarriak dira, hodeietaraino heltzen baitira eta hauek leku batetik bestera garraiatzen dituzte.

Kutsaduraren ondorio larrienetako bat euri azidoa da. Hau da, euria egiten duenean, hodeietako gas kutsakorrak euriarekin batera jausten dira, eta euri kutsakor honi euri azidoa deitzen diogu. Azido honek, baso eta zelai asko hondatzen ditu.

Bestalde, kutsadurak ere, ozono geruza mehetu eta puskatu egiten du. Ozono geruzak Lurra eguzkitik datozen izpi ultramoreetatik babesten du.



Kutsadurak sortzen dituen kalte hauei aurre egiteko, egin dezakeguna zera da: energia berriztagarriak erabili (ugariak eta agortezinak direnak), besteak beste, energia eolikoa, biomasa, eguzki energia eta energia geotermikoa.

Halaber, guk ere kutsaduraren aurkako erronka honetan ekintza asko egin ditzazkegu gure egunerokotasunean: birziklatu, garraio publikoa erabili, natura zaindu, kontsumoa gutxitu, materialak berrerabili, kutsatzen dituzten gasen kontsumoa gutxitu eta abar.

Kutsaduraren gaia oso gai garrantzitsua da, gure osasun eta ongizatearen ondorio larriak izan ditzakelako. Mundua gure etxea da eta hau zaintzea gure eskuetan dago.



Toki- Alai ikastetxeko 4.D-ko ikasleak

Txingudi Ikastolako 4 mailako ikasleak, Euskara egunean, beste ekintza batzuen artean, Mihiluze jolasa egin genuen bakoitza gure gelan. 4-5 ikasle elkarrekin jarriaz, froga desberdin eta dibertigarriak betetzen joan ginen. Froga batzuetan, gai baten inguruan egindako galderak erantzun behar ziren , eta beste batzuetan aldiz, mimika erabiliz edo marrazki baten bidez asmatu behar genuen ezkutuko hitza edo irudia zein zen. Primeran pasa genuen!







EUSKARALDIA

Euskararen Hilabetea 2018

Irun